

# JEAN LE ROND D'ALEMBERT

Iñaki Azkune Mendia\*

**M**atematikari, zientzilari, filosofo eta idazle frantses hau, Parisen jaio zen 1717.eko azaroaren 16an. Aristokrata baten sasiko semea zen eta jaio orduko Saint Jean-le-Rond elizan utzi zuen abandonaturik bere amak. Horregatik ipini zioten izen hori. Umea beiralari batek eta bere emazteak jaso eta hazi zuten arren, aitak ikasketak ordaindu egin zizkion.

Gero D'Alembert ospetsu bihurtzen hasi zenean, egiazko ama azaldu zitzaion eta bereganatu egin nahi zuen, baina mutilak harro-harro ezezkoa eman zion, "Nire ama beiralariaren emaztea da" esanez.

Ikasketak ia berak bakarrik egin zituela esan daiteke, teologia, medikuntza, zuzenbidea eta matematika bere kontura ikasi zituelako. Hogeita hiru urte zituela onartu zuten Zientzi Akademian eta grabitazio-teoriaz (ekinozioen preziesioaz batez ere) arduratu zen. Lan hartan Lagrange eta Laplace-ri aholkuak eman zizkien.

1743. urtean Dinamikari buruzko tratatua argitaratu zuen. Bertan "d'Alembert-en printzipioa" deitzen dena adierazten du, dinamika eta estatika erlaxionatuz. Harez gero lan ugari argitaratu zuen fluidoen dinamika, gorputz zurrunaren mekanika, unibertso mekanika edo ekuazio diferentzial partzialez. 1749. urtean adi-



bidez, ekinozioei buruzko ikerketak argitaratu zituen eta edozein gorputzen biraketa-higidura zehazteko soluzioa lehen aldiz proposatu zuen, 1751. urtean, Diderot-en *Encyclopédie* edo "Entziklopedia" famatuari sarre-rako hitzaldia idatzi zion, 1752.ean "Éléments de musique" lana argitara eman zioten, 1754.ean ekuazio diferentzialezko sistemak ebazteko metodoa proposatu zuen, (deribatu partzialen adibidea lehen aldiz adieraziz), 1765.ean Frantziako jesuiten kontra lantxo bat argitaratu zioten, 1768.ean serieen kasu berezi batean konbergentzi irizpidea erabili zuen (bere izena ipini zioten), etab. Esan beharra dago matematikari buruz egin zituen lanak zortzi liburutan 1780.ean

argitaratu zituela. Kalkulu analitikorako zenbaki konplexuak aski zirela frogatu zuen.

1762. urtean, Frantziako Akademiako idazkari izendatu zuten eta harez gero hil arte bere gain izan zuen kargu hura. Federiko II.ak Berlingo Akademiako lehendakari izatea proposatu zion eta Katalina II.a Errusiakoak San Petersburg-eko Akademiarako dei egin zion, baina eskaintea haiek ez zituen onartu. Frantziako Akademiatik bere lagunei laguntzen saiatu zen.

D'Alembertek lan filosofikoak bildu eta "Mélanges de philosophie, d'histoire et de littérature" izeneko liburuan argitaratu zituen. Bere pentsakeran materialismoa eta idealismoa ditu. Errealitate objektiboa badela eta zientziaren garapen eta aurrerapenean sinesten duela dio, baina bespetik, materiaz kanpo arima bizi dela ere aitortzen du. Egia absolutuaz jabetzea ezinezkoa dela dio eta Jainkoa munduaren sortzaitzat hartzen du.

Dena den, d'Alembert Diderot-ekin batera "Entziklopedia" famatuan parte hartu zuelako da ospetsu. Sarrera eta artikulua idatzi zituen, baina jarraitzeko zailtasunak zeudelako lana Dideroten esku geratu zen.

D'Alembert Parisen hil zen 1783.eko urriaren 29an.



\* ZETIAZ - Elhuyar

